

GRADU ETA ERALDAKETA DIGITALERAKO ERREKTOREORDETZAREN DEIALDIA, DO-CENTIAZ PROGRAMAREN IRAKASLANA EBALUATZEKO UNIBERTSITATE BATZOR-DEAN (IEUB) PARTE HARTZEKO IKASLEEN POLTSA OSA DADIN

DOCENTIAZ EHUko Irakasleen Irakaskuntza Jardueraren Ebaluazio Programa da eta bere emaitzek irakaskuntza praktika egokiak aintzat hartzeko balio dute, EHUk diseinatutako irakaskuntzaren prestakuntza eta berrikuntzarako programei lotuta egon ohi direlarik.

Irakaslan Ebaluatzeiko Unibertsitate Batzordea (IEUB), DOCENTIAZ programara aurkeztutako EHUko irakasleen espediente bakoitzari buruzko azken balioespen epaia emititzeko ardura duen organoa da, ebaluazio protokoloan ezarritako irizpideekin bat eginik. Batzorde hau EHUko irakasleek, beste unibertsitate batzuetakoek eta hirugarren zikloko edo gradu ondoko ikasleek osatzen dute, irakaskuntzan izen ona eta balioespen prozesuetan aritutakoak haiek, eta ikasketetan ibilbide ona izandakoak, hauek. IEUB osatzen dutenek konfidentzialtasun klausula sinatu behar dute, balioespen prozesu osoan baliatutako informazio guztia isilpean tratatu eta aztertuko bada.

DOCENTIAZ eskuliburuan ezarri legez, IEUBren osaera gobernu kontseiluak berretsi beharrekoa da, irakaskuntza lana balioesteko arloan eskudun den errektoreordearen proposamena ikusita. Ikasleak errektoreak izendatuko ditu urte beterako.

Honako deialdi honen helburua da ikasle ebaluatzaileen poltsa bat irekitzea, IEUBeko kide izan daitezkeenak. Poltsa honetan parte hartu nahi duenak ondoko baldintzak bete beharko ditu, deialdian honetan parte hartzeko epea amaitzen denean:

- Graduondoko ikasleak izatea.
- EHUn lizentziatu edo graduatu den ikasle izatea.

CONVOCATORIA DEL VICERRECTORADO DE GRADO Y TRANSFORMACIÓN DIGITAL PARA CONFORMAR UNA BOLSA DE ESTUDIANTES PARA SER INTEGRANTE DE LA COMISIÓN UNIVERSITARIA DE EVALUACIÓN DOCENTE (CUED) DEL PROGRAMA DOCENTIAZ

DOCENTIAZ es un programa de evaluación de la actividad docente del profesorado de la EHU, cuyos resultados sirven para reconocer las buenas prácticas docentes y están ligados a los programas de formación e innovación docente diseñados por la EHU.

La Comisión Universitaria de Evaluación Docente (CUED) es el órgano responsable de la emisión del juicio evaluativo final sobre cada uno de los expedientes del profesorado de la EHU que se presenta al programa DOCENTIAZ, de acuerdo con los criterios establecidos en el protocolo de evaluación. La CUED está compuesta por profesorado de la EHU y de otras universidades con un gran prestigio docente y conocimiento de los procesos de evaluación y por alumnado de Postgrado que haya demostrado una buena trayectoria en sus estudios. Quienes integran la CUED deben firmar una cláusula de confidencialidad, con el objeto de garantizar la privacidad de la información manejada en el proceso de evaluación.

Tal y como se establece en el manual DOCENTIAZ, la composición de la CUED debe ser ratificada por el Consejo de Gobierno a propuesta del/de la Vicerrector/a competente en materia de evaluación de la actividad docente. El alumnado será nombrado por el Rector para un periodo de un año.

La presente convocatoria tiene por objeto la apertura de una bolsa de estudiantes-evaluadores/as para formar parte de la CUED. Quienes deseen formar parte de esta bolsa, deberán cumplir los siguientes requisitos, en la fecha de expiración del plazo de la presente convocatoria:

- Ser estudiantes que cursen estudios de Postgrado.
- Ser estudiantes que se hayan licenciado o graduado en la EHU.

Euskararen eta ingelesaren ezagutza eta historia akademikoa baloratuko dira.

Se valorará el conocimiento de euskara e inglés y el historial académico.

Poltsa honetan parte hartu nahi dutenek curriculum, aurkezpen gutun bat, eta Ebaluazio Zerbitzuaren web gunean eskuragarri dagoen [fitxa](#) igorri beharko dituzte ebaluazio.zerb.docentiaz@ehu.eus helbide elektronikora, **2025eko azaroaren 28a baino lehen**.

Quienes deseen formar parte de la bolsa, deberán enviar su Curriculum, junto con una carta de presentación, y la [ficha](#) disponible en la página web del Servicio de Evaluación, debidamente cumplimentada, a la siguiente dirección de correo electrónico: ebaluazio.zerb.docentiaz@ehu.eus antes del día **28 de noviembre de 2025**.

Mezuaren **Gaian** honako hau adieraziko da: **Ikasleen poltsa_IEUB/CUED (2026)**.

En el **Asunto** del mensaje se indicará lo siguiente: **Bolsa de estudiantes_IEUB/CUED (2026)**.

Hautatutako ikasleei Docentiaz Programarako ebaluatzaileak prestatzeko online tailer batean parte hartzeko deia egingo zaie, Ebaluazio Zerbitzuak antolatuta. Ikastaro hau gainditzea ezinbestekoa izango da lan-poltsan sartu ahal izateko eta Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordeko kide izateko deialdietan hautagai izateko, EHUko ikasleen estamentuko ebaluatzaile gisa.

El estudiantado seleccionado será llamado a participar en un Taller de formación online de personal evaluador para el Programa Docentiaz, organizado por el Servicio de Evaluación. La superación de este curso será requisito para poder entrar a formar parte de la bolsa y ser candidato a llamamientos para ser integrante de la Comisión Universitaria de Evaluación Docente, en calidad de personal evaluador por el estamento de estudiantes de la EHU.

Urtza Garay Ruiz
Gradu eta Eraldaketa Digitalerako Errektoreordea
Vicerrectora de Grado y Transformación Digital